

## GOBERNU BATZARRARI

### ESKUORDETZEEN GAINeko ERABAKIA ALDATZEA

2015eko ekainaren 13an Udalbatza eratu eta gero, egun bereko ebazpen bat dela bitarte eratu zen Gobernu Batzarra ere.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 127. artikuluaren arabera, Gobernu Batzarrak 2015eko ekainaren 19ko akordio bitarte bere eskumen gehienak batzarkideengan eskuordetu zituen. Hitzarmenak onartzeko ahalmena eman zien Gobernua osatzen duten zinegotziei, Gobernu Batzarraren eskumeneko hitzarmenak ez bestea.

Baina, Eskuordetutako ahalmen eta eskumenak erabiltzeko Arauek (Gobernu Batzarrak 2015eko ekainaren 19an egindako bilera hartin bertan onartu zituen haien) ez dute jartzen zein hitzarmen diren Gobernu Batzarraren eskumenekoak, eta, beraz, pixka bat doitu egin behar da arau horien idazkera, eta argiago utzi zein organori dagokion hitzarmenak onartzeko eskumena.

Alde horretatik, pentsatu dena da hemendik aurrera hitzarmen guztiak onartzea —zer eduki duten eta diru aldetik zer eragin duten edo ez duten goiti-beheiti— Gobernu Batzarrak bakarrik egin ahal izango duela, eta, beraz, gai hori ez dela eskuordetzan ematerik izango.

Beraz, Alkatetza honek ondorengoa proposatzten du

## AKORDIOA

LEHENA.- Eskuordetutako ahalmen eta eskumenak erabiltzeko Arauei buruz Gobernu Batzarrak 2015eko ekainaren 19an hartutako erabakiko 3.a.5) atala aldatu eta honela uztea:

## A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

### MODIFICACION DEL ACUERDO SOBRE DELEGACIONES

Tras la constitución de la Corporación el 13 de junio de 2015, por Resolución de esa misma fecha quedó conformada la Junta de Gobierno Local.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 127 de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases de Régimen Local, la Junta de Gobierno Local, con fecha 19 de junio de 2015, acordó delegar parte de sus atribuciones en sus miembros. En concreto, delegó en los/as concejales/as de Gobierno la aprobación de convenios, con la exclusión o excepción de aquellos que sean de la competencia de la Junta de Gobierno Local.

Sin embargo, las normas para el ejercicio de las facultades y atribuciones delegadas -aprobadas en esa misma sesión del día 19 de junio- no establecen ni definen qué convenios son de la competencia de la Junta de Gobierno Local, por lo que resulta conveniente realizar determinados ajustes en la redacción de dichas normas, con el fin de dejar claro el órgano al que compete aprobar los convenios.

En ese sentido, se plantea que, en lo sucesivo, la aprobación de todos los convenios, con independencia de su contenido y de su afección económica o no, quede reservada a la Junta de Gobierno Local, no siendo por tanto esta materia objeto de delegación.

Por todo ello, esta Alcaldía propone la adopción del siguiente

## ACUERDO

PRIMERO.- Modificar el apartado 3.a.5) del Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 19 de junio de 2015 por el que se aprueban las Normas para el ejercicio de las facultades y atribuciones delegadas, que queda redactado como sigue:

5) Era guzietako hitzarmenak onartzea.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, AOAJAko 46 eta 52. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

3.- Hurrena egiten duen bileran ematea erabaki horren berri Udalbatzari.

5)- La aprobación de todo tipo de convenios

2- Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 46 y 52 del ROFRG.

3.- Dar cuenta de dicho acuerdo al Pleno en la próxima sesión que celebre.

Donostian, 2017ko irailaren 12an

**ALKATEA**

**ENEKO GOIA LASO**